



Kulturgest Bilbao. La gestión cultural, ampliando los márgenes



Kulturgest Bilbao Programaren bigarren edizioa. Bilbon kulturaren kudeaketari buruzko Uda Ikastaroen zikloa da.

Eka. 23 2023

Kod. K05-23

Mod.:

Online zuzenean Aurrez aurrekoa

Edizioa

2023

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Eka. 23 2023

Kokalekua

Bizkaia Aretoa-UPV/EHU

Hizkuntzak

Gaztelera

Balio akademikoa

10 ordu

Antolakuntza Batzordea



Azalpena

Politika publikoak, oro har, etengabeak izan ohi dira, bere ingurune kulturalaren instituzionalizazioa bermatuz. Hala ere, egungoa bezain aldakorra den ingurune batean, aberasgarria izan liteke kultura-politikaren ohiko praktikaren barruan kokatzen ez diren kultura-praktika berriei begirada bat ematea. Ikastaroak kontsumo eta kultur sorkuntza modu ezberdinen bidez kultur politikaren marjinak nola zabaltzen diren hausnartzeko balio duten ikuspegiak eman nahi ditu. Digitalizazioaren eta eskaintza birtualaren edo online ekaintzaren aukeren leihoa aztertzen du, bai eta kultura-politikak osasun mentala bezalako arloetan nola eragin dezakeen ere.

Helburuak

Kulturaren tokiko politika publikoen jardun-eremuei, edukiei buruz hausnartu.

Tokiko kultura-politika publikoko formatu berriei buruz hausnartzea.

Lankidetzak



Programa

2023-06-23

09:00 - 09:15	Registro
09:15 - 09:25	Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena
	Espacios y agentes para la mediación y gestión cultural: innovación y retos de futuro Ainhoa Novo Arbona UPV/EHU - Profesora Agregada
09:25 - 10:15	“Las políticas culturales en la era de las plataformas digitales” Octavio Kulesz Editor digital
10:15 - 11:00	“Internet, prácticas artísticas y políticas culturales para un presente crítico y un futuro creativo” Lidia Orán Llarena
11:00 - 11:30	Atsedena
11:30 - 12:15	“Cultura y Salud Mental: reflexiones y prácticas” Kontxi Kerexeta Zulaika Observatorio Vasco de la Cultura Aintzane Larrabeiti San Román
12:15 - 13:30	Mahai ingurua: “Las políticas culturales ampliando los márgenes” Ainhoa Novo Arbona UPV/EHU - Profesora Agregada (Moderatzailea) Aintzane Larrabeiti San Román Lidia Orán Llarena Octavio Kulesz Editor digital Kontxi Kerexeta Zulaika Observatorio Vasco de la Cultura

Zuzendaritza



Ainhoa Novo Arbona

UPV/EHU, Profesora agregada

Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko (UPV/EHU) Politika eta Administrazio Zientzien Saileko irakasle doktorea. Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko Irakaskuntza Antolakuntzako dekanordea eta Zientzia Politiko eta Kudeaketa Publikoko Graduako koordinatzailea izan da. Duela bost urtetik hona, Euskal Herriko Unibertsitateko Gradu Batzordeko kide da eta, gainera, Zientzia Politikoari buruzko Espainiako Aldizkariaren Argitalpen Kontseiluko kide. Politika publikoak, bereziki berdintasunekoak eta sistema federalak izan dira bere ikerketa-ildo nagusiak.

Irakasleak



Kontxi Kerexeta Zulaika

Lehendakaritza

Zientzia Politikoak eta Soziologia lizentziaduna da (Deustuko Unibertsitatea), eta Hizkuntza Plangintzako Diplomatura (EHU-UPV) du. Bere lanbide-karrera hizkuntza normalkuntza eta prospekzio soziologikoari lotua dago, administrazio publikoan. Azken 20 urteetan bere lana Lehendakaritzako Azterlan Soziologikoen Kabineteari lotua egon da eta berriki Kulturaren Euskal Behatokian hasi da.



Octavio Kulesz

Octavio Kulesz filosofoa, editore digitala eta Teseoko zuzendaria da, Latinoamerikako argitaletxe elektroniko nagusietako bat. UNESCOko aditu gisa, bere lana aro digitaleko kultura-industriekin lotutako gaietan zentratzen da. 2020an, Adimen Artifizialaren Etikari buruzko Gomendioa idazteko UNESCOren Aditu Taldeko kide izendatu zuten, gai horri buruzko munduko lehen arau-tresna.



Aintzane Larrabeiti San Román

Filosofiako lizentziaduna da (Deustuko Unibertsitatea), eta Kultura Kudeaketako Masterra (DU) du. Bere lanbide-karrera kultura- esparruari lotuta dago, administrazio publikoan zein unibertsitatean eta enpresa pribatuan. Aholkulari- lanetan aritu da kultura-politikei, plangintza estrategikoari, aisiaren inguruko hezkuntzari, kalitatearen kudeaketari eta giza baliabideei lotutako arloetan. Azken hamabost urteetan bere lana Kulturaren Euskal Behatokiari oso lotuta dago. Laguntza teknikoaren koordinatzailea izan da (2006-2010). Ordurik hona Behatokirako ikerketa kuantitatiboetan zein kualitatiboetan parte hartzen du. ICC Consultorsekin lankidetzan dihardu 2006. urteaz geroztik, eta 2012an sartu zen enpresa horretan.



Lidia Orán Llarena

Ederretan doktorea Madrilgo Complutense Unibertsitatean (2016-2021). Bere tesiak “Sare sozialen bidezko irudikapen bisualaren jabetzea eta simulazioa: Instagramen kasua” jorratzen du. Kanarietako Gobernuako Hezkuntza Sailerako Berdintasun eta Hezkuntza Afektibo Sexualaren Arloko Arte eta Genero Foroa proiektuan hezitzailea izan da. Argazkigintzari buruzko hitzaldiak eman ditu “sare sozialetan: adierazteko, komunikatzeko eta harremanetan jartzeko modu berri bat” (2022, Tenerife).

Matrikula prezioak

AURREZ AURRE	2023-06-23 ARTE
Matrikula doan	0 EUR

ONLINE ZUZENEAN	2023-06-23 ARTE
Matrikula doan	0 EUR

Kokalekua

Bizkaia Aretoa-UPV/EHU

Abandoibarra etorbidea. 48009- Bilbo

Bizkaia